**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2018ko Maiatzak 29 / 29 - Mayo - 2018**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2018/05/29

**HASIERA / INICIO:** 16:00etan

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna
Doña Maria Soledad Juaristi Alberdi andrea

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Don Jorge Varela Dorrio jauna
Don Francisco Javier Lopez Lakunza jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSOE) (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILETZA / INTERVENCIÓN DE FONDOS**
Don Xabier Egaña Gutierrez jauna

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 16:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 16:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

**UNO.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

❖ **2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.**

❖ **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2017.**

* Egaña Gutierrez jaunak: Likidazio txostenetik sortu ahal diren zalantzak edo zehaztapen batzuk behar izanez gero, kontu-hartzailetza sailera zuzendu eta bertara bideratu zalantzak. Beste alde batetik, barkamena eskatu behar dut datuen kontua gazteleraz eman behar dudalako.

Otsailaren 27an onartu zen dekretu bidez likidazio-txostena eta abiapuntua gertaera adierazgarri bat zuen; zera, aurrekontu-luzapenean geundela. Gure behin betiko aurrekontua 36.452.792,30 eurokoa da; hau da, hasierako aurrekontuari, 28.433.463,31 eurori, 8.019.328,99 euroko aldaketa batzuk eginda.

Gastu-gauzatzeari lotutako atalari dagokionez, gastuak onartutako betebeharhtzat hartuta, gastu arrunten gauzatze maila % 93,70ekoa izan da eta kapital-gastuarena % 34,85ekoa. Gastu-gauzatzea kapituluka xehatuta, 1. kapituluan, pertsonalari dagokion horretan alegia, % 98,16ra iritsi da gastua. 2.ean, gastu arruntari dagokionean, % 90,83ra eta 4. kapituluan, transferentzia arruntei, dirulaguntzei eta erakunde autonomo, amankomunazgo eta erakunde publikoei eginiko ekarpenei dagokienean, % 92,39ra.

Datu horiek, 2016ko ekitaldiko likidazioarekin alderatuta, 1. kapituluan, gastu-gauzatzea % 0,93 igo da, 2. kapituluan, gastu arrunta % 0,98 jaitsi da eta 4. kapituluan, transferentzia arrunten kapituluan, % 5,44 igo da.

* Sr. Egaña Gutierrez: Si surgen dudas o se necesitan aclaraciones sobre el informe de liquidación, deben ser remitidas al Departamento de Intervención. Por otro lado, pido perdón, ya que voy a dar cuenta de los datos en castellano.

Es un informe de liquidación que se aprueba por Decreto el 27 de febrero y que partía de un hecho relevante que era que estábamos en prórroga presupuestaria. Tenemos un presupuesto definitivo de 36.452.792,30 euros que se correspondía con el presupuesto inicial de 28.433.463,31 más unas modificaciones por importe de 8.019.328,99 euros.

Yendo al apartado de ejecución de los gastos, entendiendo los gastos como aquellos que son obligaciones ya reconocidas, el grado de ejecución en gasto corriente ha sido de 93.70% y, en cuanto a gasto de capital ha sido de un 34,85%. Desglosado por capítulos la ejecución en el capítulo 1 relativo a personal ha alcanzado el 98,16%; en cuanto al capítulo 2, de gasto corriente hasta 90,83% y en el capítulo 4 de transferencias corrientes, subvenciones y aportaciones a Organismos Autónomos, mancomunidades, sociedades públicas el 92,39%.

Estos datos, confrontándolos con la liquidación del ejercicio 2016, tendríamos que en el capítulo 1 ha habido un incremento de la ejecución de gasto del 0,93%, en el capítulo 2 de gasto corriente una disminución del 0,98% y en el capítulo 4 de trasferencias corrientes un incremento del 5,44%.

Gastu arrunt osoari dagokionez, hiru kapitulu horiek eta finantza-gastuena aintzat hartuta, gastu arrunta, guztira, 2016koarekin alderatuta, % 1,62 handitu da eta kapital-gastua, berriz, % 24,21 txikitu da.

En cuanto al total del gasto corriente, tomando en consideración estos tres capítulos y el de gastos financieros, en total el gasto corriente se ha incrementado respecto al 2016 en la ejecución del mismo en 1,62% y en cuanto a gasto de capital ha disminuido en 24,21%.

Diru-sarreren exekutatze mailari dagokionez, adierazi behar da aurrekontu-luzapenean geundela eta horren ondorioz, Tokiko Entitateen aurrekontuei buruzko Foru Arauaren aplikazioari lotuta, muga edo ezintasuna genuen aurrekontu doituagoa finkatzeko eta nolabait, luzatutako aurrekontua heredatu beharko genuke.

En cuanto al grado de ejecución de los ingresos hay que poner de manifiesto que estábamos en prórroga presupuestaria, ello conllevaba que en la aplicación de la Norma Foral presupuestaria de las Entidades Locales teníamos una limitación o una imposibilidad de fijar un presupuesto más ajustado además que tendríamos que heredar, en cierto modo, el presupuesto prorrogado.

Datu horretatik abiatuta, aurrekontuaren exekuzioa guztira, diru-sarreren atalean, % 83,21ekoa izan da eta diru-sarrera arruntei dagokienez, exekuzioa % 102,75ekoa izan da eta kapitalaren diru-sarrerei dagokiena, exekuzio maila % 0,87ra iritsi da. Zifra horren arrazoia zera da, soberakinak, aurrekontuako elementuak ez diren arren, sartu egin behar direla likidazioaren barruan eta beraz, 8. kapituluan sartzen dira eta, beraz, desnaturalizatu egiten dute, neurri txiki batean, 0,87ko parametro hori.

Partiendo de ese hecho, el grado de ejecución presupuestaria total en el apartado de ingresos ha sido del 83,21% y en cuanto a ingresos corrientes la ejecución ha sido del 102,75% y, en cuanto a ingresos de capital, el grado de ejecución ha alcanzado el 0,87%. Esta última cifra tiene su razón de ser en que los remanentes, pese a no tratarse de elementos presupuestarios, sí tienen que incorporarse dentro de la liquidación, entonces se incorporan dentro de este capítulo 8 y, por lo tanto, desnaturalizan un poco este parámetro del 0,87.

2016ko likidazioarekin alderatuta, hauxe: zuzeneko zergen 1. kapituluan, % 4,88 igo da; zeharkako zergen 2. kapituluan, % 17,38 igo da. Tasen eta beste diru-sarrera batzuen 3. kapituluan, % 6,90eko igoera izan da eta 4. kapituluan, transferentzia arruntek % 1,87ko igoera izan dute. Diru-sarrera arrunta, guztira, % 3,56 handitu da eta kapitalaren diru-sarrera % 86,35 txikitu da.

En comparación con la liquidación del 2016: en el capítulo 1 de impuestos directos se ha incrementado un 4,88%; en cuanto al capítulo 2 de impuestos indirectos se ha incrementado un 17,38%. En cuanto al capítulo 3 de tasas y otros ingresos ha habido un incremento del 6,90%, y en el capítulo 4 ha habido un incremento de las transferencias corrientes del 1,87%. En cuanto al total del ingreso corriente se ha incrementado en un 3,56% y el ingreso de capital ha disminuido un 86,35%.

Aitortutako eskubideak gauzatzearen mailari dagokionez, gauzatze maila hori kobratu dugunari dagokio. Aurrekontu arruntean ekitaldiaren amaiera % 96,66an kobratu da 2016ko datuekin alderatuta. Orduan, % 96,93ko kobratzea izan zen. Kapitalaren aurrekontuan, % 87,53 bildu da eta, 2016an, berriz, % 70,44 bildu zen. Bada kontuan hartu beharreko datu bat eta da, gastu arruntean gastatzen dugun diru-sarrera arrunten ehunekoa. Horrek adierazten digu diru-sarrera arrunten zer zati erabiltzen dugu gastu arrunt hau finantzatzera eta soberan gelditzen zaigunak ematen digu modua kapitalaren gastuak finantzatzeko. 2017an, ehuneko hori % 91,52koa izan da eta 2016an, % 93,27koa izan zen.

En cuanto al grado de realización de derechos reconocidos, esto es, el grado se refiere a qué es lo que hemos cobrado. En el presupuesto corriente se ha cobrado la finalización del ejercicio en 96,66%, respecto al año 2016 cuyo cobro ascendió al 96,93%. En el presupuesto de capital se ha recaudado 87,53% frente a 70,44 del año 2016. Un dato que hay que tener en cuenta que es el porcentaje de ingreso corriente que nos gastamos en gasto corriente, que nos indica qué parte del ingreso corriente dedicamos a financiar este gasto corriente y lo que nos sobra es aquello que posibilita la financiación de gastos de capital. En el año 2017 este porcentaje asciende a 91,52 y en el año 2016 ascendió a un 93,27%.

2017ko abenduaren 31n kobratzeko azaltzen saldoei dagokienez, itxitako ekitaldiei dagozkien saldoei dagokienez, alegia, likidazio-txostenean zerrendatuta daude, baina honako hauek dira gai garrantzitsuenak: kobratzeko zeudenetatik, 926.000 euro inguruko berreskuratzea lortu dugu, baja eman zaio zenbait likidaziori 685.000, euroko zenbatekoko bajak, hain zuzen, eta bada 2010eko ekitaldiari dagokion datu adierazgarri bat ere: 556.000 euroko deuseztatze bat izan da, bere garaian, osorik erabili ez arren osorik kontabilizatu zen mailegu baten amortizazioari dagokiona.

Zalantza hau sortu zen Ogasun Batzordean ere eta argitu nahi dizuet maileguaren benetako erabileraren araberako errekonozimendu partzialak egin behar zirenean, horien ordez, maileguaren errekonozimendu osoa egin zela. Hori dela eta, urtero aurrekontuaren erregularizazioa egin behar izaten dugu urteko izango genukeen hipotekaren amotizazioaren harira.

Diruzaintzan gastu orokorretarako gelditutako soberakin garbia, hau da, gastu orokorretarako soberakinaren eta ondorengo ekitaldian egindako txertatzeen arteko aldea, 2.256.912,39 eurokoa da; aurrekontu bateratuari dagokionez, behin betiko aurrekontua 40.462.219,39 eurokoa da eta hasierako aurrekontu horri dagozkio 30.709.765,69 euro eta aldaketei, berriz, 9.752.453,70 euro. Amaitzeko, likidazio-txostenean jasota dago beteta daudela egonkortasuna, gastuaren araua, zorra eta baloi garbi positiboa.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Interesdun gaien kontu honetan gainerako gai guztiak Idazkaritza Nagusian daude zuen esku, baina gustatuko litzaidake adieraztea atzo bozeramaleen batzordean adierazi nuen kontu bat. Aurreratu izan da pleno ordua nik beste ekitaldi bat neukalako, Durangoko udalaren ordezkaritzari dagokion ekitaldi bat. Ekitaldia, azkenean, bertan behera geratu da. Badakidanez zuetariko askok saiakera berezia egin duzuela aurreratze hau egin ahal izateko, nire eskerrik beroenak adierazi nahi dizkizuet.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

En cuanto a los saldos que figuran pendientes a cobro a 31 de 2017 de ejercicios cerrados, aparecen listados en el informe de liquidación pero las cuestiones más importantes son las siguientes: se han producido unos recobros de un pendiente por un importe de 926.000 euros aproximadamente, se han dado bajas a liquidaciones por un importe de 685.000 euros y un dato que aparece respecto al ejercicio de 2010 de una anulación por un importe de 556.000 euros, se corresponde con una amortización de un préstamos que en su momento se contabilizó por su totalidad pese a que no hubo una disposición total del mismo.

Esto es una duda que ya surgió en la comisión de Hacienda y aclarar que cuando se debían de haber realizado reconocimientos parciales en función de la disposición efectiva del préstamo lo que se hizo realmente fue hacer un reconocimiento total del préstamo. Ello nos obliga a hacer una regularización presupuestaria anual que se corresponde con la amortización hipotética que tendríamos todos loa años.

El remanente neto de tesorería para gastos generales, que es la diferencia entre el remanente para gastos generales y las incorporaciones en el ejercicio posterior, es de 2.256.912,39; en cuanto al presupuesto consolidado el presupuesto definitivo asciende a 40.462.219,39 correspondiendo a ese presupuesto inicial 30.709.765,69 y a modificaciones 9.752.453,70; para finalizar, en el informe de liquidación aparecen reflejados tanto el cumplimiento de la estabilidad, la regla de gasto, el endeudamiento y el valor neto positivo.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En lo que refiere a este punto, el resto de los temas están a vuestra disposición en Secretaría General, pero me gustaría comentar un tema que ya mencioné ayer en la Junta de Portavoces. Se ha adelantado alguna vez la hora del Pleno porque yo debía asistir a otro acto correspondiente en representación del Ayuntamiento. Dicho acto, al final, ha sido suspendido. Sé que muchos de vosotros habéis realizado un esfuerzo especial para poder adelantar la hora del Pleno y quiero expresaros mi más sincero agradecimiento.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**BI.- BIDEZKOA BALITZ, KALE GARBIKETA ETA HIRI HONDAKIN BILKETA ETA GARRAIO ZERBITZUAREN LIZITAZIO ESPENDIENTEA REN ONARPENA. (HIRIGINTZA, OBRAK ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2018KO MAIATZAREN 23KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza Batzordearen irizpena 2018ko maiatzaren 23koa, eta honako hau dioena:

*"Idazkaria Nagusiak 2018ko apirilaren 18an egindako txostena ikusi ondoren, hauxe dioelarik:*

***1.- Identifikazio datuak***

*Plegu honen arabera egingo den kontratuaren xedea izango da udalerriko eta Durangoko zerbitzu osagarrien kale-garbiketa eta hondakin solidoak bilketa eta garraio egitea. Egin beharrekoen norai-nokoa baldintza teknikoen pleguan jasotzen eta beronekin batera doazen eranskinetan.*

*Jardueren araberako produktuen klasifikazio estatistikoaren kodea, (CPA-2002) kontratuari dagokiona: 90.02.20 (hondakin solidoak) eta 90.03.13 (kaleen garbiketa zerbitzuak eta estolde-ria publikoa eta antzeko bestelako jarduerak).*

*CPV Nomenklatura kodea (kontratu publikoen hiztegi komuna): 90500000-2*

*Hondakinekin zerikusia duten zerbitzuak. 90600000-3 hiriguneetako mantenu eta garbiketa zerbitzuak.*

*UNITATE SUSTATZAILEA: Bulego teknikoa.*

*ESPEDIENTEA TRAMITATZEN DUEN UNITATEA: Idazkaritza Orokorra. Kontratazio eta ondare unitatea.*

*ESPEDIENTEAREN HASIERA-DATA: 2018ko martxoaren 23a.*

*Aipatutako kontratua egiteko proposamenaren ostean, kontratuaren dagozkion gestioak egin dira eta hasierako dokumentazioa prestatu. Halaber,*

**DOS.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE LICITACIÓN RELATIVO A LOS SERVICIOS DE LIMPIEZA VIARIA Y RECOGIDA Y TRANSPORTE DE RESIDUOS URBANOS. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN DE URBANISMO, OBRAS Y VIVIENDA DE 23 DE MAYO DE 2018).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Vivienda, de 23 de Mayo de 2018, del tenor literal siguiente:

*"Visto el informe emitido por el Secretario General en fecha 18 de abril de 2018 cuyo tenor literal es:*

***1.- Datos Identificativos***

*El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la limpieza viaria y recogida-transporte de los residuos urbanos del municipio y servicios complementarios de Durango con el alcance que se describe en el pliego de condiciones técnicas así como en los Anexos que integran el mismo.*

*Código de Clasificación Estadística de productos por actividades que corresponde al contrato (CPA-2002): 90.02.20 (Residuos Urbanos) y 90.03.13 (Servicios de limpieza de calles y otras actividades de saneamiento público y similares).*

*Código de nomenclatura CPV (vocabulario común de contratos públicos): 90500000-2.*

*Servicios relacionados con desperdicios y residuos. 90600000-3 Servicios de manteni-miento y limpieza en áreas urbanas.*

*UNIDAD PROMOTORA: Oficina Técnica.*

*UNIDAD QUE TRAMITA EL EXPEDIENTE: Secretaría General. Unidad de Contratación y Patrimonio.*

*FECHA DE INICIO DEL EXPEDIENTE: 23 de marzo de 2018.*

*Propuesta la realización del contrato indi-cado, realizadas las gestiones pertinentes y elaborada la documentación inicial necesaria, el que*

*dagokion espedientea onartu da, jarraian jasotzen den txostenarekin eta proposamenarekin bat etorriz.*

*2.- **Kontratazio espedientea***

*Kontratazio espedientea sektore publikoaren kontratuen, azaroaren 8ko, 9/2017 Legeak eskatzen duena aintzat hartuta egin behar da, zeinaren arabera Europako parlamentuaren eta kontseiluaren, 2014ko otsailaren 26ko, 2014/23/EB eta 2014/24/EB jarraibideak igortzen baitzaizkio Espainiako ordenamenduari, 116 eta hurrengo artikuluetan, esleipen-prozedura aurretiko fase moduan. Txosten honi dagokion espedientea aipatutako agindu horren arabera abiatu eta tramitatu da, eta esleipena egin aurretik onartu behar da, betiere, sektore publikoaren kontratuen legearen 117. artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz.*

*3.- **Espedientearen tramitazioa***

*SPKLk bi tramitazio mota aurreikusten ditu kontratazio prozedurentzat: ohiko tramitazioa eta laburtua, eta honen barruan sartzen diren presazko tramitazioa eta larrialdiz egin beharrekoa.*

*Kasu honetan, espedientearen tramitazioa ohikoa izango da.*

*4.- **Esleipena egiteko prozedura***

*SPKLren 131 artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz "La adjudicación se realizará, ordinariamente utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido, salvo los contratos de concesión de servicios especiales del Anexo IV, que se adjudicarán mediante este último procedimiento.*

*En los supuestos del artículo 168 podrá seguirse el procedimiento negociado sin publicidad; en los casos previstos en el artículo 167 podrá recurrirse al diálogo competitivo o a la licitación con negociación, y en los indicados en el artículo 177 podrá emplearse el procedimiento de asociación para la innovación."*

*suscribe somete al órgano competente del referido contrato, la aprobación del correspondiente expediente, de acuerdo con el informe y propuesta que a continuación se recogen.*

*2.- **Expediente de Contratación***

*El expediente de contratación viene exigido por de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 en su artículo 116 y siguientes como fase previa al conjunto de actuaciones que configuran el procedimiento de adjudicación. El expediente objeto del presente informe ha sido iniciado y tramitado conforme a lo dispuesto por dicho precepto y deberá ser aprobado de forma previa a su licitación, conforme a lo dispuesto por el artículo 117 de la LCSP según lo previsto en dicho artículo.*

*3.- **Tramitación del expediente.***

*La LCSP prevé dos tipos de tramitaciones para los procedimientos de contratación: La Tramitación Ordinaria y la abreviada, dentro de la cual se integran la tramitación urgente y la que se realiza por emergencia.*

*En el presente supuesto, la tramitación del expediente será ordinaria.*

*4.- **Procedimiento de Adjudicación***

*Conforme a lo dispuesto por la LCSP en su artículo 131 "La adjudicación se realizará, ordinariamente utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido, salvo los contratos de concesión de servicios especiales del Anexo IV, que se adjudicarán mediante este último procedimiento.*

*En los supuestos del artículo 168 podrá seguirse el procedimiento negociado sin publicidad; en los casos previstos en el artículo 167 podrá recurrirse al diálogo competitivo o a la licitación con negociación, y en los indicados en el artículo 177 podrá emplearse el procedimiento de asociación para la innovación.."*

*Kasu honetan, prozedura IREKIA erabiliko da.*

***5.- Administrazio-baldintza berezien plegua***

*Espedientean kontratu hau arautuko duen administrazio-baldintza berezien plegua eransten da, bere edukia bat datorrelarik kudeaketa beharrizanekin eta prozeduraren eskakizunekin.*

***6.- Kontratazio espedientea eta beroni dagokion gastua onartzeko organo eskuduna***

*1. Toki erakundeen kontratazioetako arau espezifikoak ezartzen dituen SPKLren 2. xedapen gehigarriak ezartzen duenaren arabera, alkateei dagozkie, kontratazio organoak diren aldetik, honako kontratu hauen eskumenak: obra kontratuak, hornikuntza kontratuak, zerbitzuena, obrak emateagatiko kontratuena, zerbitzuak emateagatiko kontratuak eta administrazio kontratu bereziak, beti ere, kontratu hauen balioak ez badu gainditzen aurrekontuen ohiko baliabideen %10a, ezta ere, edozein kasutan, sei milioi euro baino handiagoak badira. Eta honakoak ere sartzen dira: urte anitzetako kontratuak, betiere, lau urte baino gehiago irauten ez badute, eta egin daitezkeen luzapenak, betiere, urte bakoitzeko zenbatekoek ez badute gorago aipatutako portzentajea gainditzen, hau da, lehen urtealdiko aurrekontuen ohiko baliabideak gainditzen ez badituzte, edota aipatutako zenbatekoa baino txikiagoa bada.*

*2. Osoko bilkuraren eskumenekoak dira, toki erakundeak egin ditzakeen aurreko atalean aipaturiko kontratuen kontratazio-organoa den aldetik, eta, betiere, kontratuaren balioa edo iraupena dela eta, alkateari eta toki erakundeko presidenteari ez dagozkionetan, eta betiere, aurreko atalarekin bat etorriz.*

*Halaber, osoko bilkurari dagokio aipatutako legearen 121. artikuluak jasotzen dituen administrazio-baldintza orokorren pleguak onartzea.*

*Hortaz, Durangoko Udaleko osoko bilkuraren eskumena da espedientea eta dagokion gastua onartzea eta, halaber, osoko bilkuraren eskumene-*

*En el presente supuesto se empleará el procedimiento ABIERTO.*

***5.- Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares***

*En el expediente se acompaña el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que se propone para regir en este contrato, cuyo contenido se ajusta a las necesidades de gestión y a las exigencias del procedimiento.*

***6.- Órgano competente para la aprobación del expediente de contratación y del gasto que éste conlleva***

*1. La Disposición Adicional 2ª de la LCSP que establece las Normas específicas de contratación en las Entidades Locales, establece que corresponden a los Alcaldes las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, los contratos de concesión de obras, los contratos de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales, cuando su valor estimado no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, eventuales prórrogas incluidas siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.*

*2. Corresponden al Pleno las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos mencionados en el apartado anterior que celebre la Entidad Local, cuando por su valor o duración no correspondan al Alcalde o Presidente de la Entidad Local, conforme al apartado anterior.*

*Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a los que se refiere el artículo 121 de esta Ley.*

*Será por tanto, el Pleno del Ayuntamiento de Durango el órgano competente para la aprobación del expediente, del gasto correspondiente, así como para ejercitar las potestades*

*koak dira kontratuen inguruan legeak kontratazio-organoari egozten dizkionak.*

*Esandakoa aintzat hartuta, honako igortzen zaio kontratazio-organoari:*

***Ebazpen proposamena***

*Esandako guztia kontuan izanda, kontratu honen organo eskudunari honako ebazpena hartzea proposatzen zaio:*

*"1.- Udalerriko eta Durangoko zerbitzu osagarrien kale garbiketa eta hondakin solidoen bilketa eta garraio zerbitzuaren kontratazioko espedientea onartzea. Egin beharrekoen norainokoa baldintza teknikoen pleguan jasotzen eta beronekin batera doazen eranskinetan. Halaber, honako gastu hau onartzea: BI MILIO ZORTZIREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA BERREHUN ETA HAMASEI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (2.874.216,19 €/urteko) gehi dagokion BEZ.*

*2.- Kontratua esleitzeko prozedura irekitzeko ebazpena hartzea, eta dagozkion iragarkiak argitaratzea."*

***IRIZPENA***

*EAJ/PNV (2), PSE-EE (PSOE) (1) eta PP (1) udal taldeen ordezkarien aldeko botoarekin, eta EH Bildu (2) eta SQ-2D (1) udal taldeen ordezkariaren abstentzioaz, honako proposamen hau luzatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari.*

***AKORDIOA***

*1.- Udalerriko eta Durangoko zerbitzu osagarrien kale garbiketa eta hondakin solidoen bilketa eta garraio zerbitzuaren kontratazioko espedientea onartzea. Egin beharrekoen norainokoa baldintza teknikoen pleguan jasotzen eta beronekin batera doazen eranskinetan. Halaber, honako gastu hau onartzea: BI MILIO ZORTZIREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA BERREHUN ETA HAMASEI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (2.874.216,19 €/urteko) gehi dagokion BEZ.*

*2. Kontratua esleitzeko prozedura irekitzeko ebazpena hartzea, eta dagozkion iragarkiak argitaratzea."*

*que la Ley otorga al órgano de contratación en relación a los contratos.*

*En virtud de lo dispuesto, se eleva al Órgano de Contratación la siguiente*

***Propuesta de Resolución***

*Por cuanto antecede, se propone al órgano competente en este contrato, la adopción de la resolución siguiente:*

*"1.- Aprobar el expediente para la contratación del servicio objeto la limpieza viaria y recogida-transporte de los residuos urbanos del municipio y servicios complementarios de Durango con el alcance que se describe en el pliego de condiciones técnicas así como en los Anexos que integran el mismo, así como un gasto de DOS MILLONES OCHOCIENTOS SETENTA Y CUATRO MIL DOSCIENTOS DIECISEIS EUROS Y DIECINUEVE CENTIMOS (2.874.216,19 €/año) más el IVA correspondiente.*

*2.- Disponer la apertura del procedimiento para la adjudicación del contrato, procediendo a la publicación de los anuncios correspondientes."*

***DICTAMEN***

*Con el voto favorable de los representantes de EAJ/PNV (2), PSE-EE (PSOE) (1) y PP (1) y la Abstención de EH Bildu (2) y SQ-2D (1) se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente.*

***ACUERDO***

*1.- Aprobar el expediente para la contratación del servicio objeto la limpieza viaria y recogida-transporte de los residuos urbanos del municipio y servicios complementarios de Durango con el alcance que se describe en el pliego de condiciones técnicas así como en los Anexos que integran el mismo, así como un gasto de DOS MILLONES OCHOCIENTOS SETENTA Y CUATRO MIL DOSCIENTOS DIECISEIS EUROS Y DIECINUEVE CENTIMOS (2.874.216,19 €/año) más el IVA correspondiente.*

*2.- Disponer la apertura del procedimiento para la adjudicación del contrato, procediendo a la publicación de los anuncios correspondientes."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* Ingurumeneko Teknikaria **Larruzea Abad jaunak**: Gaur egun kale garbiketa eta udal hondakinen jasotze zein garraio kontratua 2006an jarri zen abian; kontratu hau, gaur egun, luzatuta daukagu eta hona ekartzen ditugun plegu bereziak Agenda 21k ezarritako helburuak lortzeko tresna baliogarri bezala ikusi dezakegu, hau da, helburua udal-hondakinen %60a birziklatzea Durangoko biztanleriak.

Laburbilduz, zerbitzu berriak hobekuntza batzuk dakartza. Alde batetik maila handitzea, beharrezkoak diren inbertsioak, makinaria zein edukiontziak, ezartzea eta arlo sozialean zein ingurumen arloan irizpideak ezartzen ditu plegu honek. Proposatzen dugun epea 10 urtekoa da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Ezartzen diren baldintzak alde batetik pertsonalaren subrrogazioa, hau da, 49 langile bere gain hartu behar ditu enpresa berriak. Halaber, kale-garbiketaren maiztasuna handitu egiten da, hau da, erdigunean egunero egin behar da eta gainerako kaleetan bost egunez astean. Horrela Durangoko biztanleriaren %98ek astean bost eguneko kale-garbiketa izango dute.

Kutsadura atmosferikoari begira, ureztatze-garbiketa sarriago egingo da eta ez-ohiko garbiketak, hau da, jaiekin, kontzertuekin, azokekin edo auzo-festekin beharrezkoak diren ez-ohiko garbiketak ere kontratu honen barne geratzen dira. Eta arratsaldeko garbiketa zerbitzua ere proposatzen da. Honetaz gain, errekaren garbiketa ere barneratzen da kontratu honetan.

Hondakinak jasotzeari buruz, eguneroko jasotzeak jarraitzen du eta hondakin organikoen ezartzea edukiontzien bidez, txip elektroniko bidez. Azkenik, inbertsioei buruz esan behar dugu makinaria guztia berriztatzea aurreikusten dela, eta 470 edukiontzi ere berriztatu behar dira, %30a irisgarritasun unibertsala betez.

Berrikuntza moduan, plegu hauek, arlo sozialean zein ingurumen arloan irizpideak ezartzen dute. Alde batetik, esleitutako enpresak, hobekuntza eta iraunkortasun plan bat ezarri behar du, eta plan

ABIERTO debate, se producen las siguiente intervenciones:

* Técnico de Medio Ambiente **Sr. Larruzea Abad**: El contrato que tenemos para la recogida y transporte de los residuos municipales, se puso en marcha en el 2006. El contrato está, hoy en día, en prórroga y teniendo en cuenta los pliegos especiales que traemos aquí, puede ser una herramientas útil para conseguir los objetivos fijados por la Agenda 21; es decir para conseguir que los habitantes de Durangon reciclen el 60 % de los residuos municipales.

Para resumir, el nuevo servicio trae varias mejoras. Por un lado, aumentar el nivel, las inversiones necesarias, colocar la maquinaria y los contenedores; es decir, este pliego establece criterios sociales y medioambientales. Proponemos un plazo de 10 años con una opción de prórroga de otros dos años. Las condiciones que se fijan, son, por un lado, la subrogación del personal; es decir, la nueva empresa debe tener en su plantilla 49 trabajadores. Además de ello, aumenta la frecuencia de los trabajos de limpieza de la calle; es decir, se deben realizar todos los días en el centro y en el resto de las calles, cinco días a la semana. Así el 98% de los habitantes de Durango disfrutarían de la limpieza de calles cinco días a la semana.

En cuanto a la contaminación atmosférica, la limpeza mediante agua se realizará con más frecuencia y los trabajos de limpieza extraordinarios fiestas, conciertos, ferias y fiestas de barrios quedan también incluidos en el contrato. Y también se propone el servicio de limpieza por las tardes. Además de ello, el contrato incluye la limpieza del río.

La recogida de residuos seguirá realizándose diariamente y los residuos orgánicos se recogerán en contenedores mediante chip electrónico. Por último, en cuanto a las inversiones, se prevé renovar toda la maquinaria y también han que renovar 470 contenedores cumpliendo el 30 % de accesibilidad universal.

Como novedad, estos pliegos establecen criterios sociales y medioambientales. Por un lado, la empresa adjudicataria, deberá realizar un plan de mejora ide sostenibilida y dicho plan

horrek birziklapen helburuak bermatu behar ditu eta zaratak murriztu. Berdintasuna bermatzeko derrigorrezko irizpideak ezartzen dira: bajak kubritzeko langabezian dauden pertsonak kontratatzeko berdintasun irizpideak ezartzen dira eta berdintasun zein segurtasuna bermatzeko prestakuntza ere bai.

* **Garate Mintegi jaunak (PP)**: Guk eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiegu lan honetan parte hartu duten guztiei, eztabaidatzeko eta bozkatzeko espediente bat sortu dutelako. Iruditzen zaigu onuragarria dela herritarrentzat eta alde jarriko gara, zalantzarik gabe.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ezer baino lehen, eskerrik asko plegu honetan parte hartu duten teknikariei, emaitza oso positiboa baita. Plegu honek legealdi osoko kontraturik garrantzitsuena ekarriko du, 10 urterako kontratua (beste bi urtez ere luzatu ahal izango da) baita, 34 milioi eurotik gorakoa, eta herritarrek nabarmen nabarituko dituzte emaitzak. Gobernu Taldeak teknikarien taldearekin batera lan egin behar du zerbitzuak gaur egungo errealitate eta eskakizun berriei erantzun diezaien.

Horietako batzuk aipatu nahi nituzte; adibidez, bosgarren edukiontzia ezartzea, edukiontziak eta makineria berritzea, unitate berriak garbitzea, ezohiko ekitaldietan garbiketa bereziak hedatzea eta garrantzitsuena, jakina, garbitasun maila eta maiztasuna handitzea.

Aipatu beharrekoa iruditzen zaigu, halaber, kontuan hartuko direla, ingurumen-irizpideak, bai makineriari, bai erabiliko diren erregaiei aplikatuta eta garrantzitsua da, halaber, plegu honetan irizpide sozialak ere sartuta egotea; adibidez, laneko osasuna eta segurtasuna eta aukera-berdintasuna (familiako kontziliazioa barne) baloratzea.

Zerbitzu honek eragin positiboa izango du hobekuntzak eskatzen ari diren herritarrengan. Hobekuntzak ez zituzten edukiontzietan bakarrik eskatzen, eskatzen zuten, baita, birziklatzen diren elementuak ugaritzea, makineriak sortzen dituen trabak kentzea eta, azken finean, errealitate berriei erantzungo dien zerbitzu moderno bat izatea.

deberá garantizar los objetivos de reciclaje y restingrir el ruido. Se establecen criterios de cumplimiento obligado para garantizar la igualdad: criterios de igualdad para contratar personas que están en paro, y también se tiene en cuenta la formación para garantizar la igualdad y la seguridad.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Por nuestra parte agradecer y felicitar a todos los participantes en este trabajo que da fruto a un expediente que tenemos para debatir y votar. Entendemos que supone un beneficio para la ciudadanía y no tenemos duda alguna para posicionarnos a favor.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Antes de nada felicitar al personal técnico que ha colaborado con este pliego porque el resultado es muy positivo. Este pliego va a suponer el contrato más importante de toda la legislatura ya que estamos hablando de un contrato para 10 años prorrogable por dos años más y con un coste de más de 34 millones de euros y los resultados van a ser muy palpables para la ciudadanía. Es obligación del Equipo de Gobierno trabajar junto al equipo técnico para que este servicio responda a las nuevas realidades y a las nuevas demandas a las que nos enfrentamos hoy día.

Entre ellas me gustaría citar algunas como es la implantación del quinto contenedor, la renovación de contenedores y maquinaria, la limpieza de nuevas unidades, incluso la ampliación de limpiezas especiales por eventos y por supuesto la más importante que es aumentar el nivel de limpieza y la periodicidad.

También nos parece importante mencionar que se tengan en cuenta criterios medioambientales aplicados tanto a la maquinaria como a los combustibles que se van a utilizar y que este pliego introduzca los criterios sociales como que se valore la salud y seguridad en el trabajo y la igualdad de oportunidades incluida la conciliación familiar.

Este servicio va a repercutir positivamente en la ciudadanía que ya llevaba tiempo pidiendo mejoras y no solo las pedía en los contenedores sino que también en la ampliación de los elementos que se reciclan, en eliminar las molestias que produce la maquinaria y, en definitiva en tener un servicio moderno que responda a las nuevas realidades.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Eskerrak eman nahi dizkiegu teknikariei egindako lan garrantzitsuagatik. Guk esan nahi dugu, azkenean, badugula kontratua: funtsezko zerbitzua, luzatu egin dena, batzordeetara eta Oroko Bilkuretara eraman ez dena, eta bi urteko atzerapena dugu zerbitzuarekin. Zerbitzua, azkenaldian, zaharkituta zegoen eta ez zituen herriko beharrak asetzen. Makineria zaharra, makineriaren bizitza erabilgarria amaituta, paperontzirik ez, edukiontziak hautsita, garbiketetarako maiztasun txikiegia batez ere periferiako auzoetan eta abar. 2006koa zen kontratua eta ez zetorren bat, ez herritarren errealitatearekin, ezta lurraldearen errealitatearekin ere; izan ere, gogora ekarri behar da lur urbanizatuetan % 10 gehiago dugula. Lehengo zerbitzua ez zegoen hondakinen kudeaketara egokituta, gogoera ekarri behar baita, gure eskualdean hondakin organikoaren edukiontzia jarriko duen azken udalerria izango dela Durango.

Bitxia iruditzen zaigu, kontratuak iraupen luzekoak direla eta planifikatuta daudela kontuan hartuta, aurreikuspenik eta plangintzarik ez izatea noiz amaituko diren jakiteko eta amaitzen direnean beste kontratu bat abiarazteko. Baina Udal honetan bada kontratuak eta prozesuak luzatzeko ohitura eta iruditzen zaigu kudeaketa- eta plangintza-falta nabaria dagoela.

Eredua interesgarria iruditzen zaigu eta egin dugu ekarpenen bat ere ingurumenari, aukera-berdintasunari eta bajetan emakumeak eta gizonak % 50 izatearen inguruan, baina ez da gure eredua. Gu ez gaude zerbitzuak pribatizatzearen eta kanpora ateratzearen alde; zuzeneko kudeaketa zerbitzu eraginkorragoa iruditzen zaigu eta ditugun baliabide guztiak zerbitzurako erabiliko lirateke; izan ere, kontratu honen bidez, 34 milioi euro gehi BEZa aterako ditugu kanpora urte hauetan eta diru horretatik, 4,3 milioi eurotik gora (gehi BEZa) enpresa lizitatzailearentzako industria-etekina izango dira.

Horregatik, hau ez da gure eredua, gure eredua zuzeneko kudeaketa egitea da. Urte hauetan izan dugun arazoa konpondu nahi da; makineria zaharkituta zegoena eta iritsi ezinik ibili gara eta auzo batzuk astean behin garbitzen ziren.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Queremos agradecer el trabajo tan importante que han realizado los técnicos. Por nuestra parte decir que por fin tenemos contrato: un servicio esencial que se ha estado prorrogando, no se ha traído ni a las comisiones ni al pleno, y llevamos dos años de retraso con el servicio. Un servicio que, a todas luces, en las últimas épocas estaba desfasado y no se ajustaba a las necesidades del pueblo. La maquinaria vieja, su vida útil pasada, sin papeleras, contenedores rotos, falta de frecuencia de limpieza sobre todo en los barrios periféricos etc., un contrato que era del 2006 que no se ajustaba a la realidad poblacional ni a la realidad del territorio, porque hay que recordar que tenemos un 10% más de territorio urbanizado, ni tampoco se ajustaba a la gestión de residuos ya que tenemos que recordar que Durango va a ser el último pueblo de la comarca que se va a incorporar con el contenedor orgánico.

Nos parece curioso que siendo contratos de tanta duración y que están planificados, no se haga una previsión y una planificación de cuándo van a terminar, para que cuando termine se empiece el otro contrato. Pero en este ayuntamiento hay una costumbre de dilatar los contratos, los procesos y creemos que es una falta alarmante de gestión y de planificación.

Este modelo que podemos ver interesante, de hecho hemos hecho alguna aportación sobre todo en lo medioambiental, de igualdad de oportunidades, en la incorporación del 50% de hombres y mujeres en las bajas, no es nuestro modelo, nosotros no estamos en la labor de privatizar y externalizar los servicios, creemos que una gestión directa es un servicio más eficiente, es un servicio en el que todos los recursos irían destinados al servicio del que estamos hablando, porque como se ha dicho, es un contrato que en estos años vamos a externalizar 34 millones de euros más IVA, y de ese dinero más de 4,3 millones más el IVA van a ser beneficio industrial para la empresa licitadora.

Éste, por tanto, no es nuestro modelo, nuestro modelo es una gestión directa. Se pretende ajustar al problema que hemos tenido estos años, que había un desfase con la maquinaria y no se llegaba, teniendo barrios que se limpiaban una vez por semana.

Bestalde, kezka sortu digu kontratuak luzatzeko asmo honek. Uste dugu edukia eta legitimitatea kentzen diela hurrengo udalei; izan ere, datozen 12 urteetan, datozen hiru legealdietan alegia, gai honetan ezingo dutela ia ezer egin; hau da, herritarren erabakia datozen hamabi urteetako ari gara hipotekatzen. Legealdiaren lehen urtean egin behar zen hau, teknikariek oso ondo egiten baitute haien lana, eta legealdiaren lehen urtean, bazen, jada, beharrak, ibilgailuak, edukiontziak zenbatuta eta beste alderdi batzuk biltzen zituen plangintza. 2015eko abenduan prest zegoen Durangoko Udalak zituen beharren inguruko txosten xehea. Gainera, azkenurteak gero eta okerragoak izan dira eta herritarrei zekarkien kostua % 2,5 igo zen iaz eta % 2,5 aurten, zerbitzua gero eta okerragoa izan arren.

Beste elementu bat ere aipatu nahi dut eta zera da, oso kontratu garrantzitsua dela eta gure ustez, herritarrei eta langileei entzun egin behar zitzaien, haiek baitira zerbitzua eta beharrak ondoen ezagutzen dituztenak. Beste aukera bat galdu dugu zerbitzu ezin hobea, kalitatezkoa eta beharrak eta zerbitzuak uztartuko dituena izateko. Langileak zalantzan daude lizitazio honekin zerbitzua plantilla berarekin zabal ote daitekeen: 2006ko plantilla, 49 langilekoa, subrogatu egingo da. Eta lurraldea handiagoa izango da hemendik 12 urtera: hiri-lurzorua handiagoa izango da eta zerbitzu gehiago egongo dira. Jasota daude lehengo zerbitzuan egon arren egiten ez ziren xehetasun batzuk eta orain ere sartu direnak; adibidez, gorotzak jasotzea. Langileek zalantzak dituzte eta okerrena da inork ez diela ezer kontsultatu.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Gaur egun indarrean dagoen kontratuak 14 urteko iraupena izan du, nahiz eta bere garaian 10 urterako irten zen eta aukera zegoen beste bi gehiago luzatzeko. Gerora, beste bi ez-ohiko luzapen egin behar izan dira, beraz, 14 urte izan ditugu kontratu berri bat prestatzeko. Bereziki, azken bi urte hauetan gai hau behin baino gehiagotan atera dugu batzordeetan, izan ere, guretzat, aurrekontuaren %10 eramango duen azpi-kontratazio batek ondo aztertzea merezi du, alegia, zeintzuk diren eskatzen diren baldintzak eta zelan ateratzen den zerbitzu hori.

